

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Bizipoza jaia, Pausoka eta Super Hren eskutik

Urietako bi elkarteek parte-hartze nabarmena izango dute datorren apirilaren 27an Hernanin ospatuko den egun osoko jaian / 10

Memoria, ardatz

"Oroituz, Andoainen" elkartearen ekitaldia Andoainen / 8-9

Zapotxin pailazoaren ikuskizuna antolatu du, larunbat arratsaldean Saroben, Poxta Zahar elkarteak / 11

Irunberri elkarteak izango da aurtengo Santa Krutz jaietako protagonista / 2-3

Euskal Herriko Bollotopaketak Leitzan izango dira eta aurkezpena egin zuten Andoainen / 4

bertako
igogailuak | ascensores

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

100€-tik/hileko

+2.000 bezerok gogun dute konfiantza

943 903 450
bertoko.eus



2015ean Irunberri elkartearen aldeko ekitaldi sinbolikoa egin zuten, Auzitegi Nazioanalararen aldetik itxiera gertu zirudienean. AIURRI

Pregoa, Irunberri elkartearen eskutik

Udazkenean sortu zuteneko hogeitabosgarren urteurrena ospatu zuen Kale Nagusiko elkarteak. Efemeride borobila baliatuta, elkarte gastronomiko ezagunari dagokio aurtengo jaiari hasiera ematea

Erredakzioa ANDOAIN

Irunberri elkarteak izango da aurtengo pregoilaria, jaien hasierako suzuria jaurtitzeko, auzoetako Jai Batzordeen lekukoa hartuko duena. Apirilaren 30ean izango da, asteartearekin, Zubiaurre etxean. Lehenago, gaztetxoaren pregoia irakurriko bada ere, helduen ekitaldiarekin ematen zaio hasiera ofiziala.

Kale Nagusiko elkarteari jaiari hasiera emateko arrazoia elkartearen beraren ibilbidean aurki daiteke. Udazkenean, 25 urte bete ziren elkarteak sortu zela eta, geroztik, erreferente izan da auzunean eta, oro har, herri mailan. Azaroan, urteurrenaren harira, Ainara Audikanak argiro utzi zuen zein zen elkartearen bokazioa. Aiurriri eskainitako elkarrizketan honako hau adierazi zuen: "Elkarrekin apustu argia egin du kultur ekimenen alde. Euskal Herria

ulertzeko ikuskeratik abiatuta, Gau Beltza eta beste ekimen asko gauzatzeko ekarpena egin da. Sorgin Gaua da horietako bat". Horiez gain, hamaika hitzaldi, aurkezpen eta ekitaldi antolatuta dira bertan.

Aipagarria ere, Ritxi Etxezarretak elkarrizketa berean erantsitakoa: "Andoain mailan, egun,

elkarte guztiak batzen dituen ekimen bakarra bakailao txapelketa da. Garrantzitsua deritzot horri eustea. Elkargune bat da, izaera askotarikoena. Eta ez da ahaztu behar elkarteak Santa Krutz jaiari egiten dion ekarpena dela".

Irunberri izango da, beraz, jaien hasierako protagonista.



Santa Krutz jaien atal berezia webgunean

Albisteak, deialdiak, egitaraua

SANTAKRUTZAK '24

Jaien hasierako txupinazoa



Bakailao txapelketako epaimahaia, artxiboko irudian. AIURRI

Irunberri, eragile aktiboa Jai Batzordeari eta egitarauari oso lotuta dagoen elkarte da Irunberri. Askoren artean, elkartearen arteko bakailao txapelketa antolatzen dute. Eragile dinamikoak izateaz gain, taberna jaiaren guneetako da Santakrutzetan.



Zumeatarra elkarteak, 2022ko jaien hasieran. AIURRI

Aurrekariak, Zumeatarra elkarteak Belabi kaleko elkarteak 50 urte bete zituenean ere jaien hasierako pregoia irakurri zuen. Elkartearen barnean dago kirol elkarteak, eta biak ala biak garrantzi handiko eragileak dira Santa Krutz jaietan.



lako pregoilariak, auzoetako Jai Batzordeak. AIURRI

Pregoiarien zerrenda luzea Auzoetako Jai Batzordeak, Aiurri, 1964ko danborradako emakumeak... Urte urte, askotariko norbanakoak eta kolektiboak izan dira jaiari hasiera ematen. Azken urteotan, Zubiaurre etxean egiten dute ekitaldia.



Santa Krutz jaietako harriak altzako dituzte, aurtan, hirugarren aldiz. Ikusmin handia pizten du lehiaketak, herrikideen artean. AIURRI

Egitarautik, aipagarriena

Pregoa, herri krosa, hiru danborrada, bakailao txapelketa, kuadrillen eguna, herri bazkaria, sagardo-lehiaketa eta txakolin-dastaketa... Egitarauko hitzordu ugari betikok dira. Baina badira aipatzea merezi duten ekitaldiak

Erredakzioa ANDOAIN

Urtero lez, Santa Krutz Jai Batzordeak egitarau oparoa osatu du jaietarako. Astearte arratsaldean hasi eta igande arratsaldera bitarte luzatuko da jai giroa, haur, gazte zein helduentzat.

Asteartean, haur pregoia eta txupinazoa izango dira protagonistak, betiere, txarangaz, danborradaz eta Lebiton konpartsez lagunduta. Aurtengoan, Irunberri Kultur Elkarteak botako du txupina. Gauean, andoaindarrez osatutako Arrixku eta Gozo Gozo taldeek hartuko dute oholta.

Asteazkenean, parranda bota ez duten kirolariek beren hizordua izango dute: Kros Herrikoa eta txirrindulari lasterketa. Bestalde, ondo pasatzeko eguna den arren, ezin alde batera utzi oroimena; izan ere, Joxe Ramon Ansa oroituko dute Espigoian, "Ez gaude ahaztuta" izenpean. Ausartenak ere erre-

ka jaitsieran parte hartzeko aukera izango du. Txikienek ere edukiko dute zer egin, esaterako, bizikleta festan parte hartu edota Zezensuzkoaz gozatu.

Ostegunean aurkezpen handirik behar ez duen eguna ospatuko da, Kuadrillen Eguna. Egun osoko egitarau oparoa egin dute.

Egun berezia izan ohi da Santa Krutz eguna eta ostirala dela jakinda, jendetza espero da Zumean, Bekoplazan eta Kale Nagusian. Ohi bezala, Bandedaren Jaitsierak, Ezpata Dantzak eta Eskopeteroek hartuko dute protagonismoa. Urkikoek beren arropa zuri-gorriak jantzita erakustaldi ikusgarria egingo dute Udal Korporazioaren aurrean eta, ondoren, ikusleek, herritarrek eta festazaleek txakolin dastaketaz gozatzeko aukera edukiko dute. Horrez gain, parranda giroan murgilduko dira herritarrek, arratsaldetik

aurrera, Elektropottote-rekin eta, gauean, Nikotinaren eta Hofe-ren kontzertuekin.

Larunbatean ere askotariko ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da; besteak beste, artisau azoka, haurrentzako xake-txapelketa, musika-emanaldiak, auzo bazkaria, DJ-ak eta bakailao txapelketa, beste batzuen artean.

Azken egunean, igandean, ezin aipatu gabe utzi bermouth musikatua eta sagardo txapelketa, betiere, musikaz lagundua. Horrez gain, jaiak amaitzeko Zezensuzkoaz gozatzeko aukera edukiko dute gaztetxoek, eta Babarrunba kontzertuaz heldu-gaok direnek.

Azkenik, Aitziber Ugartemendia Jai Batzordeko kide ohiari egingo dioten omenaldia nabarmendu beharra dago; bermouth musikatuan, igande eguerdian. Espigoian izango da.

Entsegu eta prestaketa-lanak



Maiatzaren 1ean, Herri danborrada. Hilaren 4an, Peñarena. AIURRI

Danborrada, entseguak Peña Santakrutzekoa prestatzeko entseguak: Apirilak 24, asteazkena, eta 29, astelehena, 19:30etik 20:30era, Leizaran tabernaren ondoan. Hura amaituta, egun berean eta toki berean, Herri danborradako entseguak deitu dituzte.



Maiatzaren 1ean izango da erreka jaitsiera. AIURRI

Erreka jaitsiera, prestaketa-bilera Datorren apirilaren 24an, asteazkenarekin, erreka-jaitsiera bilera antolatu du Eguzkik. 18:00tan hasiko da, Urigain kultur etxean. Ekimen partehartzailea, dibertigarria eta aldarrikatzailea da.



Kirolprobak.com webgunean eman behar da izena. AIURRI

Maiatzaren leheneko lasterketa Zumeatarrak antolatuta, andoaindar ugari ariko dira lasterka. 10:30ean hasiko da eta ibilbideak 10 kilometroko luzera izango du. Aurretik izena ematen duenak 10 euro ordainduko ditu. Egun berean, 15 euro.

"Anatx" Gipuzkoa Bertsotan sailkapen-fasean ariko da

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen-fasean, Gabirian kantari ariko da datorren apirilaren 26an

Erredakzioa URNIETA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea hastera doa, eta bertan izango da "Anatx" urnietarra. Gabiriako Kultur Etxean ariko da hurrengo apirilaren 26an, 19:00tan hasita.

Sarrerak dagoeneko salgai daude bertsoarrak.eus atarian. Sarrerak ez dira zenbakituak eta aretoko ateak orduerdi lehenago irekiko dira. Internet bidez erosteko aukera saioa hasten denean amaituko da.

Gipuzkoa Bertsotan 2024

Irati Sanchez gai-jartzailearen esanetara, kantuan ariko dira:

- Aitor Tatiegi Loidi.
- Urko Egaña Calderon.
- Maider Arregi Markuleta.
- Andoni Mujika Izagirre "Anatz".
- Aitor Zubikarai Salegi.
- Uxue Fernandez Lasa.

Bertsozale elkartearen mezua

"Udaberria bertsoz beteta zetorrela abisatu genuen, eta ez da gutxiagorako izan. Aurten 20 saio jokatuko dira, bi itzulitan".



Beloki eta "Anatz", 2019ko argazkian. AIURRI

POSTONTZIA

TOPA TOLOSALDEA

Eta, bitartean, zer?



Tolosan elkartu gara adierazteko 13 urte daramatzagula honako hau eskatzen: Gipuzkoako eta Euskadiko gainerako eskualdeek aspalditik daukatenaren antzeko osasun arreta jaso nahi dugu. Tolosaldearekiko ekitatea exijitzen dugu.

Orain, zentro berria leku honetan egitea inposatu digute, eta argi eta garbi utzi nahi dugu hemen egin behar dutena ez dela eskualdeko ospitale bat, Legebiltzarrean Sailburuak berretsi bezala, baizik eta erresoluzio handiko zentro bat. Era berean, Legebiltzarrean berretsi zuten ez dituela emango, ez kalitate aldetik, ez kantitate aldetik, gainerako eskualdeetako ospitale publikoek dituzten zerbitzuak.

Gainera, inposatu diguten kokapenak, Tolosakoak, desabantaila ugari ditu, besteak beste, leku txikia halako zerbitzu egiteko eta sartu-irteteko arazoak. Badira Tolosan bertan eta, zer esanik ez, Tolosaldean, kokapen askoz egokiagoak. Oraintsu, beste proposamen bat azaldu da zentro berria egitearekin konparatzeko: Asuncion klinika publikatzea. Baina ez bata ez besteak ez diote konponbiderik planteatu gai garrantzitsu honi: Eta bitartean, zer?

Zentro berria egin bitartean edo Asuncion publikatu bitartean, jarraitu behar dugu medikuen % 60k baino gehiagok espezialitatea homologatu gabe daukan mediku talde baten esku?

Jarraitu behar dugu klinikak ematen duen kalitate hau jasotzen, egoera hau nozitzen, Donostia ospitaleko zerbitzaburuek, 2022ko abenduan, "bereziki larritzat" jo zutena eta eragin duena "Tolosaldeko jendea Donostia Ospitalean noraezean ibiltzea atenditzeko eskatuz"?

Zer egingo dute hori zuzentzeko, alegia, Tolosaldeko biztanleok jasaten ari garen egoera "bereziki larri" hau nozitzen ez jarraitzeko?

Gainera, lotu gabe geratzen da zer egoeratan geldituko diren Asuncion Klinikako langileak. Mural hau egin dugu, ez proiektua eta kokapena onartzen ditugulako, baizik eta salatzeke ez dela neurririk hartzen Tolosaldeko osasun arretaren kalitatea hobetzeko. Ez gara politika egiten ari, ekitatea exijitzen dugu. "Agintzen duenak agintzen duela, osasun arreta publikoaren kalitatea defendatu egin behar da".

Euskal Herriko Bollotopaketak, Leitzan

Apirilaren 26tik 28ra izango dira Bollotopaketak Leitzan. Heterodisidenteei zuzendutako jardunaldiak dira eta, besteak beste, kideen arteko saretea du xede asteburuak. Aurreko ostegunean aurkezpen-ekitaldia egin zuten Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko bolleren topaketak izango dira apirilaren 26tik 28ra Leitzan. Ostiraletik hasi eta igandera bitarte, askotariko hitzordua izango dira eta, hala, mahaiaurrean bueltan elkartzeko aukera izango dute heterodisidenteei. Besteak beste, kideen arteko saretea dute helburu topaketek, eta, horrez gain, zeharkatzen dituzten behar, kezka eta problematikak ipini nahi dituzte erdigunean, askotariko begiradatik erreparatzeko zein eztabaidatzeko. Hori ezik, aukera paregabe gisa ere ikusten dute asteburua bestelako subjektu eta mugimenduekin aliantzak sendotzeko eta baita aurrera begirako belaunaldiei ateak zabaltzeko ere. Apirilaren bueltan, aurkezpenak egin dituzte, tokian tokian, Euskal Herriko zenbait txokotan. Joan den asteko ostegunean izan ziren Andoainen, Buruntzaldeko kideen eskutik.

Lau hamarkada pasatxo egin behar da atzera bolleren kolektiboarentzat aitzindari izan zen mugiarriekin topo egiteko: 1983. urtean, lesbianen arteko lehen topaketak antolatu ziren Oreretako Zamalbide auzoan. Premiaz, garaiko mugimendu feministan aldarrikapen berriak eraman zituzten lehen lerrora, identita-



Jardunaldiak laster dira. AIURRI

te propio bat "borrokarako leku" bihurtuz. Ordutik, denboraren poderioz, eta unean uneko tesuinguruari erantzunez, formaz aldatzen joan da bollera subjektu politikoa: "Bollerok* jasaten ari garen zapalkuntzen aurkako borrokak beharrezkoa eta indartsua izaten jarraitzen du".

Hori horrela, beharrei tiraka eta lesbianen topaketako 40. urteurrena "motibazio iturri" gisa hartuta, egonaldi bat antolatzeke deia egin zuen bollera* eta nortasun disidenteen talde transfeminista batek. Gasteizen eman zuten lehen urratsa iaz, eta 70 lagunek erantzun zioten asanblada irekiera joateko deiladiari. Harrezkero, azken hilabeteotan,

Bollotopaketak osatzen joan dira Euskal Herriko zenbait herritan nahiz hiritan egindako bilkuretan. Bada, Leitzan egingo den asteburua izango da elkar sarete horren emaitza.

Askotariko begiradatik

Hitzaldiak, mahai-inguru zentralak, tailerrak... Hausnarketa teoriko bezain praktikoak izango dira apirilaren amaierako hitzorduan. Hori guztiak euskaraz izango dira, hizkuntza bera erdigunean jartzeko asmoz. Dena dela, antolakuntza taldetik aipatu bezala, itzulpena jasotzeko aukera edukiko dute frantsesa eta gaztelania ulertzen dutenek: bollera subjektuaren gaineko hausnarketa, *terf* mugimenduari aurkako borroka, zahartzaro bolleroak, herri txikietako eta landa-eremuko ahotsak...

Egunerokoan zeharkatzen dieten auzietatik abiatuta, eztabaidarako, hausnarketarako eta elkar ezagutzeko espazio goxoa izango da Leitzan.

**HAUSNARKETA
TEORIKO BEZAIN
PRAKTIKOAK IZANGO
DIRA LEITZAKO
HITZORDUAN**

DBH4-ko ikasleak, kazetari jardunean

Herriko hiru ikastetxeek, Andoaingo Udalak eta Aiurrik, elkarlanean, martxan jarritako proiektu komunikatiboa da "Gazte Kazeta". Ikasleak kazetari jardunean trebatzen ari dira Alba Cabrera Jauregi eta Mikel Arberas Audikana kazetarien gidaritzapean

Erredakzioa ANDOAIN

Ikasturte honetan, eremu akademikora egin du jauzi kazetaritzak Andoainen: "Gazte Kazeta" proiektua ipini dute martxan Udaleko Euskara Lansailak, herriko hiru ikastetxeek eta Aiurri aldizkariak, landiketan. Ikasleak dira ekimenaren protagonista eta, euskaraz, kazetaritzan murgiltzea du xede nagusi egitasmoak. Erreportajea da proiektuaren muina eta bizkarezurra, hori baita taldeka antolatuta elkarlanean ondu behar dutena. Ezaguna egingo zaie askori proiektua, orain urte batzuk Erreportari Gaztea Saria ekimena egiten baitzen, eta, nolabait, horretan du abiapuntua.

La Salle Berrozpe ikastetxean abiatu da erronka. Guztira, martxotik aurrera, bost saioko formakuntza jaso dute bertako ikasleek Aiurriko erredakzio-taldeko bi kideren eskutik. Behin azalpen teorikoak barneratuta, eta testuinguruan kokatuta, kazetaritza-lanetan aritu dira azken asteotan, gustuko duten gai baten gainean, eta, uneoro, bide-lagun izan dituzte tokiko komunikabideko bi erredaktoreak, proiektuari forma ematen joateko. Hala, lekukoa eman diote Aita Larramendi Ikastolari, joan



"Gazte kazeta" izena du egitasmo berriak. AIURRI

den astean ekin baitzioten ikasleek formakuntza jasotzeari. Leitzaran Institutuak, aldiz, datorren urtean emango dio hasiera ekimenari.

Jakin-minari tiraka

Gustuko duten gai baten gainean erreportajea egitea. Hori da proiektuaren funtsa. Horrela, jakin-minari tira eginda, erreportaje ederrak ari dira osatzen ikasleak, makina bat aferari buruz, gainera: akuikultura, antropologia, pertsonaia famatuaren ibilbidea, KORRIKA, Santakruzak, motoziklismoa, autotestimua, sare sozialen erabi-

lera nerabezaroan, kalamua, euskal gastronomia... Aterki zabala ondu dute, kazetaritzak ematen dituen baliabideak erabili. Alde batetik, idatzizko piezak egin dituzte, baina, bestetik, bada multimedia lengoaiari eutsi dionik ere. Hori horrela, bideoak, audioak eta argazkiak ere txertatu dituzte beren lanetan.

Ikasleek egindako ahalegina, gainera, ez da ikastetxean, soilik, nabarrituko. Izan ere, Aiurri astekariaren edizio digitalean txoko bat izango dute beren erreportajeek. Aukera ederra, horrenbestez, lumari eragiteko.

Euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak

Onuradunak merkatariak, aisialdiko begiraleak eta udako ikastaroetako ikasle gazteak izan daitezke

Erredakzioa ANDOAIN

Euskara sustatzeko dirulaguntza deialdia argitaratu berri du Andoaingo Udalak:

- Merkataritzan eta ostalaritzan errotulaziorako nahiz webgune eta programa informati-

koetarako dirulaguntza eskatzeko epea zabalik izango da, apirilaren 22tik ekainaren 16ra bitartean.

- Hogeita hamar urtetik beherako andoaindarrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza

Udako Unibertsitateetan egiten diren ikastaroak egiteko.

- Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak egiteko dirulaguntzak eskatu ahal izango dira irailaren 11tik urriaren 14ra.

Azken horri dagokionez, eskaerarekin batera ziurtagiria, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren xehetasunak ziurtatzen dituen agiria aurkeztu beharko ditu. Udalak 12.500 euro aurreikusitako dirulaguntza lerro honetarako.

POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO KONTSEILU SOZIALISTAK BETERRI-BURUNTZA

Badago alternatiba: langile boterea eraiki

Maiatzaren lehenerako mobilizazioa deitu du Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak. Ideia argi bat dago azpimarratzeko, instituzioetatik at dagoela benetako alternatiba. Instituzioen alternatiba faltsuak salatzen aritu gara azkenaldian, kalean mobilizatu behar diren aldarria egiten, eta maiatzaren lehen honetan langile boterearen eraikuntza aldarrikatzera aterako gara kalera Bilbon. Enpresarien eta instituzioen aurrean langileriarekin antolakuntza independentea garatzea ezinbestekoa dugu.

Langile klaseko kideon bizi-baldintzak okertzen ari dira etengabe, eskubide politikoekin zein ekonomikoekin esparruan. Genozidioa eta gerra munduaren egunerokoaren parte bilakatu dira. Palestinako herria errausten ari dira mendebaldeko politikarien zuzeneko edo zeharkako babesarekin. Eskala handiko gerra berri baten mehatxua ere presente daukate agintariak. Estatuaren barne aparatuei dagokienez, kontrol soziala, errepresio politikoa eta langile klasearen aurkako jazarpenak geroz eta agerikoagoak dira. Zer esanik ez esparru ekonomikoari buruz: lan-baldintzen etengabeko okertzea, oinarritzko produktuen garestitzea edota etxebizitza eskuratzeko ezintasuna gure errealitatearen parte bilakatu dira.

Hori guztia alderdi instituzionalen zuzeneko parte hartzearekin daramate aurrera mendebaldeko oligarkiek. Instituzioak horretarako daude: mendebaldeko agintarien zein enpresarien mandatuak betearazteko. Baita politikaren ikuspegi kapitalista bat gailentzeko ere. Iruzur instituzionalaren aurrean, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak kalera irteteko deia egiten du. Enpresari eta politikari profesionalen aurka. Militantziaren eta antolakuntza komunistaren alde. Gerra eta basakeriaren aurka, bizitzaren garestitzearen aurka. Estatu sozialistaren alde. Maiatzaren 1ean, Bilbora!

*Oharra: Andoaindik busa 11:00tan abiatuko da Makaldegitik.

Edukiontzien erreketak

Astelehen goizaldean Kaleberrian elkarrengandik metro gutxira dauden edukiontzi-multzoak eman zieten. Udaltzaingoa itzali zituen biak eta, goiza aurrera joan ahala, Mankomunitateko langileek ordezkari edukiontziak ipini zituzten toki berean.



JULEN LORENZO



AIURRI



Hauteskundearen informazio-paneletan EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemosen kartelak nagusitzen dira. AIURRI

Hauteskundeak, igande honetan

Politika gertuko eta gustuko duenarentzat emozio handiko gaua izan daiteke igandekoa. Izan ere, alderdi abertzaleen artean nor nagusituko den ikusteke dago. Hori iradokitzen dute, behintzat, azken asteotan argitaratu diren inkesta guztiek

Erredakzioa ANDOAIN

Duela gutxira arte, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan nagusitasuna EAJ-PNVri zegokion eta egon zitekeen emozio apurra bigarren sailkatua nor izan zitekeen argitzea zen. Joera aldatuz joan da, eta EH Bildu, deialdiz deialdi, gorantz doan aukera politikoa da. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen historikoari erreparatuta, joera hori argia da. Eta Espainiako Kongresurako nahiz Udal eta Foru Aldundietako azken deialdiek joera hori indartu dute. Gipuzkoan, bereziki, Udalgintzan indarra badu eta behetik gora doa.

Baina Euskadin EAJ-PNVren lidergotza sendoa izan da, eta igandera bitarte nagusitasun horri eusteko kanpaina betean ari dira. Historikoki, PSE-EE-rekin gobernatzen aritu dira. Aukerak badaude bitasun ho-

rrekin jarraitzeko. Demoskopiak, aldiz, bestelako aukerak badaudela argiro azaltzen du. Gerta daiteke jeltzaleen eta sozialisten artean gehiago osorik ez izatea. Gerta daiteke ere EH Bilduren garaipena uste baino argiagoa izatea.

Gainerako alderdiei erreparatuta, PPK azken urteetan galdutako babes berreskuratu nahi du. Elkarrekin Podemosek ordezkari eutsi nahi dio, Sumar lehiakidearekin borroka estuan. Igande gauean argituko dira misterio guztiak.



Jakin beharrekoak




Hautes-ontzia, artxiboko irudian. AIURRI

Nagusitasuna, tokikora ekarrita Andoainen 2016ko eta 2020ko deialdietan, EH Bildu gailendu zen. Lehenengoan, ozta-ozta. Bigarrean, alde handiz. Urrietan, bietan EAJ-PNV gailendu zen, baina 2020an ehun botor hurbildu zen EH Bildu.



Allurralde kiroldegia, bozkaleku bilakatuta. AIURRI

Aurreko deialdia, pandemia betean 2020an egondako abstentzioa azken deialdietako handiena izan da eta arrazoiak pandemia aurkitu behar da. Urte berezia izan zen eta, 2016koarekin alderatuta, %7 igo zen abstentzioa.



Hautesleketan botoak aukeran izaten dira. AIURRI

Lidergotza ezbaian Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 2016an eta 2020an, Gipuzkoan jeltzaleak nagusitu izan dira. Egia da, deialdi batetik bestera alde murriztuz joan dela. Inkesten arabera, Gipuzkoan eta EAEn, EH Bilduk irabaz dezake oraingoan.

POSTONTZIA

KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS ANDOAIN

Alderdi guztiei eskatuko diegu kontsekuenteak izan daitezen

Huteskunde-kanpainan bidaltzen ari garen jakinarazpen garrantzitsu horien barruan, lehenago azaldu dugu maiatzaren 2an Gipuzkoako Batzar Nagusietako erreforma fiskalari buruzko ponentzian aurkeztuko dugun proposamen orokorra dela administrazio guztiek ahalegin guztiak egitea, bai penalizazio moduan, bai pizgarri moduan, bai alokairu libreko parkea handitzeko, eta baita handiagoak ere, alokairu sozialeko parkea handitzeko.

Bada, proposamen orokor horren barruan, zigorren kapituluan, Kanona jenderik gabeko etxebizitzari aplikatzea sartzen da, eta manipulaturako eta alboraturako informazioak saihesteko, aplikatzeko eskatzen ari garen modua eta horretarako arrazoiak azalduki ditugu, Euskadiko udalerrri handietan aurkeztutako mozioetan egiten ari garen bezala.

Etxebizitza Politikan bi modu nagusi daude etxebizitza-parke bat handitzeko, edo eraikitakoaren gainean eraikiz edo jardunez.

Dakigunez, 67.000 familia inguru daude Etxebiden izena emanda alokairu soziala eskatzeko, edo ezin dutelako etxebizitza libre bat erosi edo alokatu, edo alokairu librean bizi direlako eta laguntzak jasotzen dituztelako hori ordaintzeko. Baina diru-sarrerak prekarioak dira eta alokairu libre horiek ordaintzeko egin behar duten ahalegina handia; gero eta handiagoa da.

Era berean, badakigu eraikuntza-prozesua oso motela dela eta 4-5 urte iraun dezakeela, eta alokairu sozialean eraikitako etxebizitzak oso txikiak dira, oraindik ere erosketako BOEtan eta erosketako etxebizitza libreetan



Andoaingo ikuspegia, artxiboko irudian. AIURRI

oinarritutako etxebizitza-politika daukagulako, erosketarako kenkari fiskalaren gaiarekin eta BOEtarako legezko erreserben gaiarekin dakigun bezala.

Dugun bizitegi-premia dela eta, etxebizitzak alokairu sozialerantz epe laburrean sar ditzakeen gauza bakarra jenderik gabeko etxebizitzak mobilizatzea da, eta hemen, guk Kanonaren aplikazioa defendatzen dugu, baina etxebizitza horiek mobilizatzeko helburua lortzeko eta helburu horren inguruan, birgaitzerako pizgarri eta laguntza sorta bat ezarri behar da, jabeek onartzen dituzten etxebizitza horiek alokairu libreko eta sozialeko merkatuetara bideratzen laguntzeko. Eta hemen sartzen dira jokoan PFEZren pizgarri fiskalak, alokairuan eraikitzen duten enpresentzako laguntzak, Bizigune eta Asap programak edo udalek aplikatzen dituzten hoberi fiskalak edo bestelako salbuespenak.

Penalizazio hori aplikatzeko arrazoa da jenderik gabeko etxebizitza bat arrazoi

justifikaturik gabe mantentzeak merkatuan distortsio bat eragiten duela, orain daukaguna bezalako prezioen igoeran, etxebizitza faltak eragindakoa, eta horren ondorioz jardun behar dugula, justifikaziorik gabeko etxebizitza huts horren aurka errepikatzen dugu.

Aplikazio hori Etxebizitzaren Legeak babesten du, jabetzaren helburu sozialean oinarrituta. Lege horrek Konstituzio Auzitegiaren iragazkia gainditu zuen, eta duela bi urte baino gehiago onartu zen hori arautzen duen erregelamendua. Araudi horrek desokupazioa justifikatzen duten arrazoi batzuk jasotzen ditu, hala nola bigarren egoitzak, lan-arrazoiengatikoa lekualdaketa... Eta bidezko arrazoi guztiak sartzearekin ados egongo ginateke.

Gainera, eta hori oso garrantzitsua da, erregelamenduak jabeari entzuteko izapide bat jasotzen du, kanona ez aplikatzeko bidezko kausa bat ote dagoen justifikatzen saiatzeko balio dezakeena, eta, halakorik ez

badago, etxebizitza hori interesatzen zaigun lekura, hau da, alokairura, zuzentzeko ezar daitezkeen pizgarri, programa eta laguntza horiek guztiak azaltzeko. Horregatik, ozen eta argi diogu salmentara mobilizatutako etxebizitza bat porrota dela, Kanonaren azken ezarpena beste porrot bat dela, eta azkenean kanona aplikatzen bada, jabe informatuak hura aplikatzea erabakitzen duelako dela.

Eta OHZren errekar gutik bereizten duen beste alde garrantzitsu bat da errekar guti hori jabearentzat baino askoz garestiagoa dela, salbuespen bidezkoagoekin, eta bildutakoa etxebizitza-politikara bideratu behar dela.

Beraz, horrela azalduta, hura aplikatzeko beharra justifikatzen du besterik gabe, eta alderdi guztiei eskatuko diegu kontsekuenteak izan daitezen.

Baina, horrez gain, etxebizitza asko bizigarri izateko erreformatu egin beharko direnez, programa berri bat sortzea proposatzen dugu, Bizigune Birgaitzuntza programa, hain zuzen ere. Programa horrek etxebizitza bizigarri bihurtzeko beharrezkoak diren eraberritze horiek egiteko laguntza emango ditu, eta jabeari dirulaguntza bat emango zaio, baldin eta, etxebizitza eraberritu ondoren, etxebizitza hori alokairu sozialera bideratzen bada emandako laguntzaren arabera urte batzuetan, eta aldi horretan jabeak etxebizitza okupatzen duen familiaren diru-sarreraren % 30ari dagokion zatia baino ez badu jasoko.

Logikoa denez, aurrekontu-baliabide gehiago beharko dira, baina aurreko bi komunikatuetan esan dugu nondik atera beharko lirakeen baliabide horiek. Ahal bada, baina ez dute nahi.

INFORMAZIOA

Hainbat galderei erantzuna

Zein da bozketa-ordutegia?

09:00etatik 20:00etara.

Botoa eman al dezaket nire

NANA, pasaportea edo

gidabaimena iraungita badago?

Bai. Bozka dezakezu agiri horiek iraungita egonda ere, baldin eta horietan hauteslearen argazkia ageri bada.

Bozka al dezaket NANA

berritzeko frogagiriarekin?

Ez, agiri horretan ez baita hauteslearen argazkia ageri.

Posta bidezko botoa eskatu dut

bozketa-egunean Euskal

Autonomia Erkidegotik kanpo

egongo nintzela pentsatuz, baina

azkenean ez dut joan behar.

Botoa ematera joan al naiteke

dagokidan hauteskunde-

mahaira?

Ez. Posta bidezko botoa eskatuz gero, botoa postaz eman edo ez eman, debekatuta dago hauteslekura bertaratuz bozkatzea.

Zenbat hauteskunde-barrutia

daude?

Hiru lurralde historikoekin egiten dute bat: Araba,

Bizkaia eta Gipuzkoa.

Zenbat ordezkari dira denera?

75. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdina izan behar dira, 25 dira probintzia bakoitzeko.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2024

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskudeen emaitzak Aiurri

Emaitzak herriz herri:
HAUTESKUNDEAK 2024

www.aiurri.eus



Banda Errepublikanoa, Sebastopol dantza taldea eta Gora Kaletxiki Banda, Andoaingo Gaztetxearen kanpoaldean. Ekitaldiari ekin aurretik kalejira egin zuten. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

1936an fusilatu eta desagerraraziei lore eskaintza egin zitzaizen eta frankismoko biktimek guztientzat egia, justizia eta erreparazioa eskatu zuten, Oroituz elkarteak antolatutako ekitaldian.

Bi zatitan banatu zuten ekitaldia. Lehenbizikoa txalapartak, bertsoak, dantzak, biktimek familiarren lore eskaintzak eta Oroituz elkartearen mintzaldiak osatu zuten. Hain zuzen, Mai-zorriko Juan Godoi, Jon Urtasun eta Ekaitz Ollok eman zioten hasiera ekitaldiari, txalapartaren hotsez. Ohorezko aureskua Xabier Olazabal akordeoi-jolearen eta Urkiko Naroa Asensio dantzariaren eskutik heldu zen, eta Punttukako bertso eskolako kide Beñat Belokik bi bertso abestu zituen.

Memoria antifrankista biziberritzen segitzeko premia
Oroituz elkarteko Lurdes Arteagaren hitzartzeak eman zion amaiera ekitaldiaren lehen par-

Frankismoko biktimek memoria biziberritzeko premia

Frankismoak Andoainen eragindako biktimek guztiak gogoan hartu zituzten 'Goiztirian, arimaren garrasia' eskulturaren aurrean larunbatean, Oroituz Andoainen elkarteak urtero antolatu ohi duen hitzorduari jarraiki

teari. Arteagak, besteak beste gogorarazi zuen Franco hil osteko trantsizioak alfonbra gorria ipini ziela kolpe militarra bul-

tzatu eta diktadura sustatu zuen elite pribilegiatuari (militarrak, politikoak, epaileak...), eta horiek, gauetik goizera, demokrataren

etiketa eskuratu ahal izan zutela, aurretik eduki zituzten pribilegio askori eutsiz. Eta kontrara, frankismoko biktimei

geroztik ukatu egin zaiela nazioartean onetsitako printzipioa, alegia "egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea".

Hamarkadetan demokraziak printzipio horri uko egin izanagatik biktimek asko eta asko inongo aitormen ofizialik jaso gabe joan direla salatzen zuten Arteagak. Eta jarraitu zuen esanez Madrilgo Kongresuan 2022an onartutako memoria historikoren legeak ere ez diola printzipio horri heltzen, nahiz eta aurre-rapauso txikia izan, kontuan hartuz gero aurreko hamarkadako memoriako politika ofizialak oso kaskarrak izan direla.

Aldi berean, aitortu zuen azken aldian frankismoaren oinordeko den eskuina ez dela oso eroso sentitzen aipatu 2022ko lege horrekin, eta azken aldian zenbait instituzioetan (Gaztela-Leon, Aragoi, Valentzia...) kontraofentsibari ekin diola, "Konkordiarene" aldeko memoriak indarrean jarritz, eta besteak beste, ukatuz frankismoa diktadura izan zenik.



Urki dantza taldeko Naroa Asensio biktimen aurrean ohorezko aureskua dantzatu zuen. AIURRI

Urtero Andoainen memoria antifrankistaren alde egiten den omenaldia eta gainerako mota guztietako ekitaldiak sekula baino beharrezkoagoak direla gehitu zuen Arteagak. "Izan ere, faxismoa borrokatu zuten errepublikanoen eta abertzaleen memoria ahazten dugun egunean, geure memoria ahaztuko dugu".

Bi bisita gidatu eta liburua

Arteagak, mintzaldian, Oroituz elkarteak hurrengo astetarako antolatu dituen zenbait ekitaldien berri eman zuen Bi bisita gidatu egingo dira; eta horietatik herrian barrena, Goikoplazan hasi eta Alfaro Parkeko eskulturaren amaituz; bidean, hainbat andoaindarren biografia txikiak eta zenbait eraikinekin lotutako istorioak kontatuko dituzte. Bigarren bisita, Buruntza mendian zeharkaldia izango da. Hain zuzen, mendi txango horrekin bat eginez, "Jainkoagatik eta Espainiagatik eroritako Buruntzako gurutze frankista" izenburua daraman liburua (berez bi liburu, euskaraz eta gaztelaniaz) kaleratuko du Oroituz elkarteak.

BURUNTZAKO GURUTZEARI BURUZKO LIBURUA LASTER ARGITARATUKO DU OROITUZ ELKARTEAK

Kantutegi antifaxista, Banda Errepublikanoaren eskutik

Joxe Mari Oiartzabalek zuzentzen duen Banda Errepublikanoak doinu antifrankistez osatutako kantutegia eskaini zuen, Sebastopol dantza taldearekin batera. "Justizia denontzat" abestiari ekin aurretik, Palestinan gertatzen ari den genozidioa salatu zuten, eta hango biktimei eskaini zieten abestia.

"A las barricadas", "Eusko Gudariak", "Ekaitza", Internazionala" eta "Len amar lagun giñan etxean" abestiekin osatu zuen emanaldia herriko abeslarien eta musikarien Bandak.

Ekitaldia bukatu ostean, bertaratuek hamaiketako baten inguruan biltzeko eta solasaldiarekin jarraitzeko aukera eduki zuten.

Bestalde, ekitaldira hurbildu ziren herritarrek ehun erretratu zaharrez osatutako erakusketa ikusteko aukera eduki zuten. Erakusketak makina bat biktimen irudiak eta euren gaineko azalpenak biltzen ditu; Oroituz taldeak biktimekin azken bi hamarkadetan egin duen bilketa grafikoaren zati bat da hori.

EKITALDIKO ARGAZKI ETA BIDEO-SORTA IKUSGAI DAGO AIURRI.EUS WEBGUNEAN

Bertsoak

Punttukako bertso eskolako kide Beñat Belokik bi bertso abestu zituen.

Apirila iritsita berriz ere elkarrekin oroituz Andoainen gerran hil zirenekin. Horman dauzkagu izenak bustirik odolarekin. Hauek sufritu zutena ezin azaldu hitzekin. Aztuta utzi zituzten horren odol hotzarekin. Oroituz gogoratzen da hemen eraildakoekin. Errepublika nahi zuten euren indar guztiekin jarrai dezagun aurrera borroka berdinarekin.

Oraindik ere gai hori present dago gizartean. Makina bat gudu daude munduko ertza bakoitzean. Palestinara keinu bat zauzkagu oroimenean. Txikia da beti txiki handienaren aurrean. Errepublika nahi dugu zentzurik zabalenean, etorkizuna finkatuz modu eraginkorrean, inortxo mantendu gabe herriaren izenean, falta direnak gogoan bizi askatasunean.

Ekitaldia Alfaro parkean



Lore-eskaintza, biktimen senideen eskutik. AIURRI

Biktimen senideak Desagerrarazi zituzten hogeita bost pertsonen eta beste hainbat biktimen ondorengoei protagonismo berezia hartu zuten ekitaldian. Lore-eskaintza une hunkigarria izan ohi da haietako askorentzat.



Argazkiak ikusgai ziren Alfaro parkean. AIURRI

Argazki-erakusketa Andoaingo elkarteak urtetan memoria historikoaren lanketan bildu dituen hainbat argazki ikusgai jarri zituen Alfaro parkean. Ehun argazki inguru dira eta ikusleen arreta bereganatzen dute, urtez urte.



Sebastopoleko dantzariak. AIURRI

Gonbidatu askoren parte-hartzea Sebastopoleko dantzariak, Banda Errepublikanoa, Gora Kaletxiki Banda, Urki dantza taldea, Punttuka bertso eskola eta Maizorri txalaparta eskola izan ziren ekitaldia aberastu zuten kultur mailako eragileak.



Bizipoza, Pausoka, Super H eta eta Hernaniko Udaleko ordezkariak, aurkezpen ekitaldian. KRONIKA

Super H eta Pausoka elkarteak Bizipoza jaiaren antolatzaile

Bizipoza irabazi asmorik gabeko elkarte da: haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede. Bizipoza jaiari, antolaketa lanetan, buru-belarri dabilta Urnietan sorburu duten Super H eta Pausoka

Erredakzioa URNIETA

Bizipozaren Jaia izango da Hernanin datorren apirilaren 27an. Hala, buru-belarri dabilta Urnietako bi elkarte antolaketa-lanetan: Pausoka eta Super H. Datorren asteko larunbatean izango da hitzordua eta, goizeko 11:00etatik hasita, egun osoko egitaraua prestatzen dabilta, tokian tokiko herri eragileekin elkarlanean.


Hernanin, eremu batean baino gehiagotan izango da ospakizuna: Atsegindegi plazan eta inguruetan egingo dira ekimen guztiak, besteak beste, Biteri kultur etxean eta Urbietan kalean. "Elkarteen gunea" deitutako txokoan, Bizipoza aurrez aurre ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Halaber, "Ikuskizunen gunea" ere izango da, baita "tailerren gunea" ere, kutsu parte-hartzaileagoarekin. Gonbidatu bereziak gerturatuko

dira egun horretan Buruntzaldeara, hala nola, Porrotx eta Marimotots. Dena dela, tokikotasunari garrantzia emate aldera, herriko zenbait elkarte ere bertaratuko dira: Ttarla dantza taldeko lagunak eta Herburu erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak, adibidez. Hala, Kanika aisialdi-taldekoek ere ez dute huts egingo. "Saiakera egin dugu, hernaniarron jaiarekin", uste du Markel Oiarzabal Bizipozako kideak, "horregatik, hasieratik bildu gara herriko ikastetxeekin, kirol federatuko kideekin, herriko eragile ezberdinekin... Eta esan beharra dugu jaso dugun erantzuna oso baikorra izan dela. Zentzu horretan oso eskertuta eta oso pozik gaude".

Ospakizuna ez ezik, sentsibilizazioari ere garrantzia eman-gu diote hitzorduan, kanpaina bat egin baitute egunaren buel-

tan. Bestalde, laguntza oro ongi-otorria izango dela azaldu zuten aurkezpenean elkarteko kideek, "boluntarioak ere behar dira, oholta beheko lana ere beharrezkoa da". Inork interesa edukiko balu, edota egunaren gaineko informazio gehiago eskuratu nahiko balu, bi bide ipini ditu antolakuntzak: markel@bizipoza.eus helbide elektronikoa eta 688 733 696 telefono zenbakia.

Besoak zabalik hartu du Hernanik Bizipoza Jaialdia, herriko alkatearen hitzetan, luzea baita herriaren eta elkartearen arteko harremana: "Askotan, Bizipozarentzat etxe bilakatu da Hernani, eta esan beharra dut, bai Udalarrentzat eta baita herritarrentzat ere ohore bat dela horrelako jaialdi bat egiteko gure herria etxetzat hartu izana. Esan bezala, orain arte elkarlanean jardun dugu Bizipozarekin, eta horretan jarraitzeko asmoa dugu".



Bi elkarteetako kideak. BIZIPOZA

Super H eta Pausoka elkarteak

Euskal Herri osoko 38 elkarte biltzen dituen elkarte handia da Bizipoza. Nork beretik, "izaera bereziko" auziak lantzen dituzte, askotariko errealitateak jendarteratzeko asmoz: "Bizipozaren helburua da denona eta denontzat beharko lukeen gizarte inklusibo bat eraikitzea, euskaratik eta euskaraz". Euskara ez ezik, "elkartasuna, bizipoza eta auzolana" ere ditu jardunaren oinarri elkarteak. Bada, horiek guztiak beren tokia izango dute Hernaniko ospakizuneari. Egitaraua antolatzeko zereginetan izan dute bi elkartek: batetik, Pausokak, eta, bestetik, Super H-k. Biek ala biek Urnietan dute sorburua.

Behar bereziak dituzten umeen familiez osatutako elkarte da Pausoka eta haurren bizi-kalitatea eta garapen funtzionala eta intelektuala hobetzea du helburu. Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako laguntza elkarte da Super H, eta ikerketari ere bideratzen dio bere jarduna. Bi elkarteentzat nabarmenki garrantzitsua da horrelako egun batean parte hartzea, bakoitzak bizi duena plazaratzeko aukera daukalako: "Gizarteak jakin dezan zergatik egiten dugun hau eta zergatik existitzen garen. Horregatik, antolatu dugu ekitaldi bat denontzat pentsatuta dagoena, denontzat egokitu".



Zapotxin pailazoa. ZAPOTXIN

Haur ikuskizuna, Urnietan, larunbatean

Zapotxin pailazoa izango da Saroben, apirilaren 20an, "Esan, galtzerdi maitea!" ikuskizunarekin

Erredakzioa URNIETA

17:00etan izango da Poxta Zahar elkarteak antolatutako emanaldia. 3-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Salgai daude, jada, sarrerak, Matxo eta Frontoitabernetan. Honako hauxe da ikuskizunaren muina: istorio kontalaria bikaina zen gure aitona. Bere galtzerdi denda jasotzen zituen istorio guztiak; handi zein txikiak, argi zein ilunak, koloretsuak zein zuri-beltsak. Asko ikusia zen galtzerdi-denda hura eta are gehiago ikusiak ziren bertako galtzerdiak. Zapotxin aitonaen galtzerdi-dendara joango da bisitan, aitona, ordea, ez da inondik ageri. Hala ere, altxor txiki bat utzi du Zapotxinentzat.

Antzerkiak bidaia txiki-handi bat planteatzen du, eta bat-batekotasunak pisu handia baitu ikuskizuneari. Bertso musikatu mordoa biltzen duen istorioa da. Galtzerdiek kontatuko dizkiote protagonistari beren jabeen abenturak eta Zapotxinek bere herria nola eta nork sortua izan den ulertuko du. Modu harrigarri batean, Elbira Zipitria ikastolen sortzailea, Lazkao Txiki, sare joslea eta beste zenbait lagun izango ditu bisitan Zapotxinek. Publikoak eta denok ozen errepikatuko dute: "Esan, galtzerdi maitea!".



Goizeko 07:00tan mendizale ugari elkartu zen Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. EUSKALDUNA MT

700 mendizale Euskaldunaren martxan

700 mendizalek hartu zuten parte Euskalduna mendigoizale elkarteak igandean antolatu zuen Andoain-Andoain mendi zeharkaldian. Edizio borobila izan zen, berrogeita hamargarrenera iritsi baita martxa ezaguna

Xabier Lasa ANDOAIN

Eguraldi zoragarriarekin esnatu zen eguna goizean goizetik, eta ederki gozatu zuten antolatzaileek prestatu zituzten hiru ibilbideekin. Edizio berezia izan zen, mende erdia betetzen baitzuen, eta egia esan, bikain erantzun zuten bailarako mendizaleek.

Ibilaldi luzeak (42 km., 2.000 metroko desnibela), Aiztondo bailara zeharkatu zuen gehienbat, honako leku hauetatik igarota: Andoain, Alkiza, Ernio (1062 m.), Zelatun, Gazume (997 m.), Zarate, Belkoain (491 m.) eta Andoain Luzera: 42 Km Desnibela: 2000 m. Zehazki 334 mendizaleek hartu zuten parte ibilaldi luze honetan.

Ziurrenik, horietako askok maiatzaren 19an egingo den XIV Orduko Ibilaldiari begira prestateta gisa hartu zuten Andoaingo saioa. Izan ere, lau urtetik behin Aralarko parke naturala alde zeharkatzen duen ibilaldi luzea izaten da, Aralarko Adiskideak elkarteak ant-

latuta. Ospe handiko mendi proba izaten da iraupen luzeko zaleentzat, baina egia da sasoi onean egotea eskatzen duela.

Ibilaldi motza (21 km., 990 metroko desnibela) izan zen Euskalduna mendigoizale elkarteak igandean parte-hartzaileei au-

keran jarri zien bigarren zeharkaldia, eta Zarate eta Belkoain aldetik igaro ziren.

Azkenik, familia giroko txangoa (10 kilometro eta 400 metroko desnibela) Adunan eta Belkoaingo tontorrean barrena egin zuten.



Aiztondon barrena egin zuten ibilaldia. EUSKALDUNA MT



Udal ordezkariak zerbitzua aurkeztu zuten udaletxean. AIURRI

Sexgunea, Andoaingo aholkularitza gunea

Aholkularitza zerbitzua bakarkakoa nahiz bikoteari zuzendurikoa izan daiteke

Erredakzioa ANDOAIN

Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak eta zerbitzua kudeatuko duen Sexune elkarteak Elene Jimenezek eman zituzten zerbitzuaren gaineko xehetasunak. Barandiaranek adierazi zuenez, Udalak abian dituen politiken barruan kokatzen da zerbitzua: “Zeregin horretan, sexualitatea erdigunean kokatzen du Udalak: alde batetik, indarkeria matxistaren adierazpen-eremuaz ari gara, eta, bestalde, harreman berri, osasuntsu eta berdinezaleak sortzeko espazioaz”.

Sexune elkarteak Elene Jimenezek sexu-aholkularitzako zerbitzuaren helburuak aipatu ditu. Hala nola:

- Sexualitatea giza baldintza gisa garatzea; kolektibo eta eremu ezberdinei hurbiltzea (aisialdiko hezitzaileei, ikastetxe orientatzaileei, osasun zentroko profesionali, emaginei, emakume taldeei, gazte-elkarteei, liburutegiari...).
- Sexualitatea eremu komunitarioan lantzea ahalbidetuko duen harreman sarea sortzea; Jabekuntza pertsonala, pertsonartekoa eta soziala lantzea.
- Emakume eta gizonen artean, betiere orokortasunean oina-

rrituz, sexualitatea modu ezberdinean bizitzen denaren kontzientzia hartzea.

- Ezberdintasunak ulertzeko, aintzat hartzeko eta modu egokian kudeatzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzea.
- Indarkeria jasan duten emakumei arreta eta akonpainamendu pertsonalizatua eskaintzea; indarkeria matxistaren prebentziorako, bikote harremanean eman daitezkeen egonezinak, desorekak eta hierarkiak identifikatzen eta lantzen laguntzea...

Harremanetarako bideak:

Sexualitatearen gaineko informazioa eta aholkularitza eskainiko du zerbitzuak, eta herritar orori zuzendutakoa da. Profesionala, isilpekoa eta doakoa izango da, eta Extremadura kalean egongo da. Hitzordua eskatu beharko da. Aholkularitza zerbitzua bakarkakoa nahiz bikoteari zuzendurikoa izan daiteke.

- Helbide elektronikoa: sexgunea.andoain@sexune.eus
- Webgunea: andoain.eus/sexgunea
- Egoitza: Extremadura, 5.
- Telefonoa: 697 919 516.

EXTREMADURA KALEAN EGONGO DA ZERBITZUA ETA HITZORDUA AURRETIK ESKATU BEHARKO DA

PROFESIONALA, ISILPEKOA ETA DOAKOA IZANGO DA SEXUNEA ZERBITZUA



Xabier Alkorta sakea egiten ari zen mementoa. AIURRI

Kontzejupeko txapelketa abiatu da, eraberrituta

Hamabigarren edizioa martxan da udaletxepean, eta, antza, ikusmira handia sortzen ari da. Pilotariek gain, badira ikustera bertaratu diren hainbat zale ere. Sanjuanak bitarte, astero-astero, partidak jokatu dira; Santakruzetan, berriz, atsedenaldira

Mikel Arberas ANDOAIN

Kontzejupeko txapelketa ezagunari buelta bat emanda, herritik eta herriarentzat egindako kirol ekitaldi bilakatu dute zenbait pilotazalek. Bada, ikusmira handiz, asteartean hasi zen txapelketa, hiru partidekin: lehen, Belauntzaran-Alkorta eta Manterola-Rodriguez bikoteen artekoa; ondoren, Uria anaien eta Beldarrain-Aimarren artean; azkenik, Gaztañaga II-Beroz II-ren eta Urruzola-Ramirezaren artekoa.

Pilotariek jokatzeko gogoz ikusten ziren; izan ere, beroketa lanetan gogor ziharduten, baita eskuak babesteko takoak jartzen ere. Lehen partidari, Belauntzaran eta Alkorta nabarmendu ziren, Manterola-Rodriguezaren aurka (22-5). Bigarren norgehiagoka berdinduagoa zirudien arren, Beldarrainek eta Aimarrek markagailuan ihes egitea lortu zuten (22-8). Azkenik, partida ikusgarriena jokatu zen, Urruzola-Ramirez eta Gaztañaga II-Beroz II bikoteen artean. Txapelketako

gazteenak, pilotari profesional ohia eta haren senidearen aurka. Azkenean, esperientzia izan zen garaipenaren tekla (22-18).

Antolatzaileak pozarren agertu dira, izan ere, lehen partidutik ikusmira handia izan da eta gazte zein heldu ugari bertaratu dira

udaletxe azpiko frontoira. Dinamika berbera jarraituta, datorren astean ere hainbat partidez gozatzeko aukera edukiko dute herritarrek; era berean, frontoia zapaldu ez duenak aukera paregabea izango du kontzejupearen berezitasunei erreparatzeko.



Ikuslerik ez da falta Kontzejupeko txapelketan. AIURRI



Gaztañaga, Beroz, Urruzola eta Ramirez. AIURRI



Belauntzaran, Alkorta, Manterola eta Rodriguez. AIURRI



Uria anaiak, Beldarrain eta Aimar. AIURRI

**AURREKO
ASTEARTEAN ABIATU
ZEN KONTZEJUPEKO
TXAPELKETA, LEHEN
PARTIDEKIN**

**DATORREN ASTEAN
ERE, ASTEARTEZ
ETA ASTEAZKENEZ
JOKATUKO DIRA
PARTIDAK**



ANDOAINGO

Lea-Artibai Challengean, onena

Andoaingo Txirrindulari Eskolako Aranguren sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu da, eta, Etxarri, zazpigarren. Meritu handiko postuak dira, hiru eguneko lasterketa dela jakinda. Junior mailakoak, 23 urte azpiko mailakoak eta elitekoak batera aritu dira. Bereziki, bikaina da Aranguren gazteak hiru eguneko lasterketan erakutsi duen maila.



AIURRI

Gipuzkoako txapelketa, gertu

Kirolari federatu nahiz federatu-gabeek hartuko dute parte Zizurkilgo duatloian, larunbat honetan. Korrika 5 kilometro egin ondoren, 20 kilometroko bizikleta itzulia izango dute Zizurkil-Aduna artean, eta amaitzeko, 2,5 kilometro korrika. Euskadiko zirkuituan sartuta dago proba, eta Gipuzkoako txapelketa ere izango da, federatuentzat.



Finala larunbatean da. ORIAMENDI

Irazu eta Eskudero, Berriako finaleretik kanpo

Jabalera-Goikoetxea VI. eta Gurrutxaga-Aiestaran VI. bikoteak elkarren aurka ari dira, Galarretan

Erredakzioa URNIETA
Oriamendik horrela laburbildu zuten asteburua: "Berria Erremonte Txapelketako finala orain arteko bi bikote onenek jokatuko dute datorren larunbatean, Galarretan. Jabalera-Goikoetxea VI.a bikoteak, Gurrutxaga-Aiestaran VI.a bikotearen aurka neurtuko ditu indarrak euren finalerdiak irabazi eta gero. Orain arteko lau partidak irabazi dituzte bi finalistek". Gauzak horrela, Zaldua II.a-Eskudero eta Irazu-Zaldua finalaurrekora sailkatutako beste bi bikoteak finaleretik kanpo geratu dira. Galarretako hitzordua 15:15ean ipinita dago. ETBk finala zuzenean eskainiko du.



LEIZARAN

Igoera faseko partida, etxean

Leizaran Ernio Inmobiliariak igera faseari garaipenarekin ekin zion, aurreko asteburuan. Deustu-Loiola taldearen kantxan irabazi zuen (29-37), eta larunbat honetan Lau Bide Legazpi taldea hartuko du etxean. 18:30ean hasiko da partida, eta zer esanik ez Andoaingo zaletuen animoak garrantzi handikoak izango direla.



UKE

Garaipen berriaren bila

Kostatzen ari zaio Urnietari garaipenak eskuratzea, baina aurrekoan etxean Mundarro garaitu zuen (2-1). Hiru puntuak lortuta, Hondarribiaren zelaian ariko dira asteburu honetan. Bost partida geratzen dira liga amaitzeko eta mailari eustea zaila badago ere, aukerak dituzten bitartean, saiatu beharko dute. Lehen aukera, asteburu honetan dute.



berria FINAL HANDIA

ERREMONTE TXAPELKETA 2024

APIRILAK 20 LARUNBATA 15:15EAN * GALARRETA JAI ALAI HERNANI

Ikusi jaiak & hiru
▶ [Aurrerazi](#), YouTube bidez:
[@gorlarrenberremontea](#)

1. PARTIDA (10 SETERRA)

ANSA II - LARRAÑAGA vs
SEGUROLA - BARRENETXEA IV

2. PARTIDA (10 SETERRA)

GURRUTXAGA - AIESTARAN VI vs
JABALERA - GOIKOETXEA VI

3. PARTIDA (10 SETERRA)

GOIKOETXEA V - ZUBIRI vs
ETXARRI - MARTIRENA












HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 18

ANDOAIN Erakusketa

EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa da, non arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen diziplina ugari erabiltzen dituzten. Tartean dira Andoaingo artisten lanak.

Bastero. Azken eguna: Apirilak 20.

ANDOAIN Matrikulazioa

Urria-azaroan Galardi Haurreskolan hasiko diren haurrak matrikulatzeko epea zabalik dago. Instalakuntzak ezagutzeko aukera dago, 943 300 655 telefono zenbakira deituta.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Bisitarien Etxea

Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik da. Apirilean eta maiatzean asteburuetan martxan izango da.

Ordutegia: 10:30-18:30.

Leitzaran Bisitarien Etxea.

ANDOAIN Antzerkia

Erretiroa hartzeaz dagoen langile batek eta ordezkatuko duen pertsonak bost egunez partekatuko dute lantokia, itxuraz ezer gertatzen ez den biltegi hutsu batean. Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza.

20:00, Bastero. 12 euro.

URNIETA Tailerra

Judit Alday fisioterapeuta urnietarrak emango du saioa. Doakoa izango da saioa eta interesa duen ororentzat, baina, AEK-k azaldu duenez, komeni da alde zuzenetik izena ematea: zilgieskola@ aek.eus edo 662 338 747 telefono-zenbakia.

16:30, Kiroldegiko boxa.

OSTIRALA 19

ANDOAIN Mus txapelketa

Joxe Mari Erkizia mus txapelketako izen-ematea zabalik da, hurrengo apirilaren 19ra bitarte. Bikote bakoitzak 50 euro ordaindu behar du, finala jokatu den eguneko afaria barne. Interesa duenak elkartearen bertan topatuko du izena emateko orria. Aski ezaguna da txapelketa, aurtengoa XLVIII. edizioa izango baita.

Izena emateko azken eguna.



Zapotxin pailazoa. KRONIKA

URNIETA "Esan, galtzerdi maitea!" ikuskizuna

Zapotxin pailazoa izango da Saroben, larunbat honetan, Poxta Zahar elkarteak antolatuta. 3-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Salgai daude, jada, sarrerak, Matxo eta Frontoi tabernetan.

Apirilak 20, larunbata. 17:00, Sarobe.

IGANDEA 21

ANDOAIN Haur antzerkia

"Teilatupean" antzezpina. Bertsoak, koplak eta beste.

12:00, Bastero. 4 euro.

EAE Hauteskundeak

Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak.

09:00-20:00, Andoain-Urnieta.

ASTEAZKENA 24

URNIETA Sari-banaketa ekitaldia

Antia literatur lehiaketa.

19:00, Sarobe.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Bakarrizketa

Sara Escudero.

20:00, Bastero.

LARUNBATA 27

URNIETA Rubik txapelketa

Rubik txapelketa. Ordutegia: Larunbata, 09:00-21:00. Igandea, 09:00-14:00.


Apirilak 27 eta 28. Lekaio.

HERNANI Ospakizuna

Bizipoza jaia, egun osoko jaia.

Egun osoko ospakizuna.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Los niños de Winton**

Lar, 20. 19:30, 22:00.
Ig, 21. 19:30.
Astl, 22. 19:30, 22:00.

Emma y el jaguar negro

Lar, 20. 17:00.
Ig, 21. 17:00.

Dragonkeeper

Lar, 27. 17:00.
Ig, 28. 17:00.



SINOPSIS

**Los niños de Winton**

Zuzendaria: James Hawes. **Aktoreak:** Anthony Hopkins, John Finn, Helena Bonham Carter, Romola Garai, Lena Olin,.... **Herrialdea:** Britainia Handia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, benetako gertaeretan oinarrituta. **Iraupena:** 110 min.

Anthony Hopkins handiaren lan berria

Burtsako korrikalari britainiar gazte batek, Nicholas "Nicky" Winton izenekoak, nazien ehunka haur erreskatatzen lagundu zuen Bigarren Mundu Gerraren atarian, bere amaren

laguntzarekin. Badu protagonistak kezka handia, urteak aurrera egin ahala. Laguntza jaso ezinik geratu ziren haur horiek. Kezka hori bizi du, 50 urteetara.



Urnieta
udala



andoainDARRA
euskaraz



Irekiera-ekitaldiko argazkia. AIURRI

Erakusketa, azken txanpan

“Salerosiak. Esklabotasunera bidaiak” izenekoak 42 artisten lanak biltzen ditu Bastero Kulturgunean

Erredakzioa ANDOAIN

Indarkeria matxistaren aurka eta emakumeen kultur eta arte ekimenak ikusaraztearen alde aritzen den elkartea da EmPoderArte. Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoan ipini duen erakusketak, zehazki, prostituzioaren errealitatea islatu nahi du, eta bere abolizioa aldarrikatzen du. Larunbata izango da erakusketaz gozatzeko azken

aukera. Bertan hango eta hemengo artisten lanak ikusgai daude. Marta Trutzuelo, Miren Atxaga, Marivi Ibarrola, Martina Dasnoy, Itziar Gutierrez, Sara Beiztegi, Maddi Trutzuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozaya dira parte-hartzaileetako batzuk. Guztira, arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen diziplinetan 42 artisten artelanak biltzen dira.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Irati Ezeiza Usabiaga
Apirilaren 26ean 27 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu asko amona Mirenen partetik.

Sua Enparantza, Antia literatur lehiaketako aurkezlea

Haur eta gazte mailako literatur lehiaketa da On Manuel Antonio Antia. Datorren asteazkenean, apirilak 24, sari banaketa ekitaldia izango da Saroben arratsaldeko 19:00tan hasita. Sarra doakoa da, baina gonbidapena beharrezkoa da. Udalak aditzera eman duenez, "Ekitaldia Sua Enparantzak aurkeztuko du, eta Danel Arteaga musikariaren emanaldiarekin giro-tuta egongo da". Gonbidapenak Saroben eskura daitezke, eta baita Urnieta.eus webgunean eta Urnieta APPn ere bai.

Haur mailakoan 148 lan aurkeztu dira, aurrean. Gazteen kategorian, aldiz, 37. Sarietaren XXX. edizioa da aurtengoa.



BIZIPOZA JAIA

HERNANI



Egun osoko festa
Apirilak 27, larunbata



PORROTX
eta ZAPOTXIN



PAUSOKA elkartea



SUPER H elkartea

eta lagun gehiago...

DANTZA, MUSIKA, JOLASAK, HITZAK!

ANTOLATZAILEAK

IKASTETXEAK

BABESLEAK



PAUSOKA
ELKARTEA




Urumea eskola
TXIRRITA ESHOLA



Hernani BHI



ARATZ



mitxelena